

Nolako da online erosteko prozesu berria?

PSD2 araudiaren segurtasun-neurriak abian jartzeko prozedurari jarraipena emanez, hemendik aurrera, online erosketetan, ordainketak onartzeko sistema berriak sartuko ditugu eta horietako bakoitza gure bezeroek emandako erabilerei egokituta egongo da.

Orain arte bezala egin eta erosketak egiten ari zaren webgunetik edo app-etik txartelarekin ordaindu.



1 - Kutxabanken APP-a daukat

Ederki, erraz erosi ahal izango duzu.

Gogoratu:

- App-aren azken bertsioa jaitsita edukitzea.
- Jakinarazpenak indarrean edukitzea.
- App-a telefono mugikorrean dagoen egiaztatzea.



2 - Online banka daukat, APPa deskargatu GABE

App-a jaitea gomendatzen dizugu, hobeto erosi ahal izateko. Bitartean:

- Online bankako "Txartelak" atalean edo "Online erosketak baimendu" alboko menuan sartu beharko duzu.
- SMS bidez iritsiko zaizun kodearekin ordaintzeko baimena eman.
- Saltokiaren webgunera itzuli, eragiketa amaitzeko.

3 - Ez daukat APP-rik, ezta Online Banka ere

Gure Online Banka-zerbitzua kontratatzea eta app-a jaitea komeni da. Horrela, online erraz erosteaz gain, Kutxabankekin dituzun eguneroko gestioak hobeto egin ahal izango dituzu.

Bitartean:

- SMS bat jasoko duzu erosterakoan, txartelaren PIN zenbakiari lotutako eragiketa matematiko bat egiteko jarraibideekin.
- Haren emaitza dendako pantailan sartu beharko duzu, SMS mezuan ere idatzitako erabilera bakarreko kode batekin.

Jaits ezazu Kutxabank app-aren azken bertsioa zure smartphonean.



Eguneratu mugikorra kutxazain eta bulegoetan.



Oraindik ez baduzu Online banka zerbitzuan alta egin, Kutxabanken **webgunean, app-ean** edo **bulegoren** batean egin dezakezu.